

HUHEZIK eta Arizmendi ikastolak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute

2012/11/19

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Arizmendi ikastola kooperatibak dira, eta urteak daramatzate proiektu komunak bultzatzen. Orain sinatu den hitzarmenaren bidez, honako proiektu hauek bultzatuko dira:

- Ikasleen prestakuntza sendotuko duten praktikak eta proiektuak.
- Kooperatibagintza arloa.
- Pertsonal arloa: irakasleen formazioa, bi erakundeetan dauden beharrei erantzuteko bide instituzionalak lantzea,...
- Ikerketa arloa.

Lankidetzaren eremua proiektu bidez garatuko da ikasturteka, proiektu horien xede, kronograma, baliabide eta aurrekontuen arabera.

